

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

SAMANIEGOKO UDALA

2021eko zergak kobratzea

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2021eko ekitaldiko errolda eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga onetsi direnez gero, jakinarazten da prest egongo direla 2021eko urriaren 15etik aurrera borondatezko aldiari ordaintzeko.

I. Ordaintzeko epea: f€

A) Borondatezko epea: 2021eko urriaren 15etik 2021eko abenduaren 15era.

B) Betearazte aldia: 2021eko abenduaren 16tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaratuak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta zerga helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenez udalean eskatu ahal izango dute.

III. Gomendioak:

Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak, Donemiliagako udaletxean (Sor Felicias kalea, 1) izapidetu beharko dira, astelehena eta ostirala bitartean, 08:30etik 14:00etara.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Samaniego, 2021eko irailaren 30a

Alkatea

M. PILAR GARMENDIA IPARRAGUIRRE